



Julen
Zulaika
Alkorta



EURIA ARI DU

Gure rapa idatziko dugu, gustuko gaia eta musika-oinarria hartuta. Ikus ditzagun eredu batzuk. Halako zerbait egin genezake guk ere!

Kaletik goaz, euria **ari du**
denentzako da baina bustitzen gaitu **beti gu**
dena araua, zigorra, **legea**
noiz egingo dugu **harresi gabeko bidea!**

Astelehen **goiza**, heltzen denean **bakoitza**
aulkian **eseri**, ta egon zaitez **geldi!**
Begira nago erloju **zaharrari**
gaurkoagatik pixkat azkarrago joan **hadi!**

Azterketen **ordua**, heltzen denean **mundua**
egiten zait mila **puska**, hau da kalabaza **uzta!**
jaso beharko **dudana**, komedia edo **drama**
hartu nahi duzun **gisan**, orain arte **bizitzan**
ez dut aukeratzeko aukerarik **izan!**

Aspaldi ikasi nuen, batzen eta **kentzen**
atzo arte plaka tektonikoa ez nekien **zer zen**
mapa baten aurrean, badakigu Kairo **jartzen**
baina noiz ikasiko dugu mundua **aldatzen.**

Txirrinak **jo du** oraindik 4 **ordu**
geratzen **dira ta** nik egon nahi dut **tirata**
edo kalean lagunekin **jolasten**
nork dio kalean ez dugunik **ikasten.**

Orain klasea orain **ingelesa**
gaztetatik barneratu dezagun **estresa**
motxila bizkarrean noa hemendik **hara**
gure eskutan ez gauden titereak **gara.**